



2002/09/26ko prentsa-oharra

JAIOTZEN ESTATISTIKA (JAIE)2002ko lehen hiruhilekoa

2002KO LEHEN HIRUHILEKOAN JAI OEN ERDIAK BAINO GEHIAGO LEHEN SEME-ALABAK IZAN DIRA

Aurreko urteko hiruhileko berean baino % 1,16 jaiotza gehiago izan dira.

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2002ko lehen hiruhilekoko datuetan, 4.254 jaio ageri dira, hots, aurreko hiruhilekoan baino % 2,9 gutxiago. Lurraldez lurralde, Araban 564 haur jaio ziren, Bizkaian 2.222, eta Gipuzkoan 1.468.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2002ko lehen hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.414 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.607 haur (% 37,8) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi dira; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak ez dira % 5,5era iristen. Bizkaian (% 42,6), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (% 43,3) baino txikiagoa izan da, eta hori herrialde historiko horretan batean baino ez da gertatu.

Amen adina egonkortu egin da

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitira erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (% 25,3); 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen % 20,5 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amaten direnak % 5,7 dira, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen % 3,3 besterik ez du ekarri. Hala ere, banaketa hori 2001eko lehen hiruhilekoan jasotakotik oso hurbil dago.


Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren % 17,9 hartzen dute, eta ia hiru puntu igo dira 2001eko lehen hiruhilekoaren aldean. Araba (% 20,2) izan da Euskal AEko kopuru orokorra baino handiagoa izan duen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina haurrak eduki dituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa da, zeren ama ezkongabeen % 20 15 eta 24 urte bitartekoak baitziren.

Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-taula

	2002ko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2001eko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.254	100,0	4.383	100,0	4.205	100,0
Araba	564	13,3	572	13,1	595	14,1
Bizkaia	2.222	52,2	2.261	51,6	2.142	50,9
Gipuzkoa	1.468	34,5	1.550	35,4	1.468	34,9
Amaren adinaren arabera	4.254	100,0	4.383	100,0	4.205	100,0
< 25 urte	243	5,7	237	5,4	218	5,2
25 - 29 urte	871	20,5	898	20,5	856	20,4
30 - 34 urte	1.923	45,2	2.005	45,7	1.958	46,6
35 - 39 urte	1.075	25,3	1.095	25,0	1.040	24,7
>= 40 urte	142	3,3	148	3,4	133	3,2
Jaiotza-hurrenketa	4.254	100,0	4.383	100,0	4.205	100,0
Lehenengoa	2.414	56,7	2.579	58,8	2.407	57,2
Bigarren	1.607	37,8	1.543	35,2	1.554	37,0
Hirugarrena edo gehiago	233	5,5	261	6,0	244	5,8

Iturria: EUSTAT

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua.



Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganza Zabalo
	Tel.: +34-945 017 534. Faxa: +34-945 017 501.
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es